VITORIA GASTEIZ green capital

SUNCINE

# SUNCINE Ingurumeneko Zinemaren Nazioarteko Jaialdiaren 20. erakusketa

# 20. Muestra SUNCINE Festival Internacional de Cine del Medio Ambiente




# ALDABE

a3e

2024ko martxoaren 11tik 21era

del 11 al 21 marzo 2024

Centro de Estudios Ambientales

CEA

Ingurugiro Gaietarako Ikastegia

## SARRERA

30. edizioara iritsi da SUNCINE, Ingurumen Gaietarako Nazioarteko Zinemaldia, ingurumenari buruzko zinemaren alorrean publiko ororentzat erreferente bihurtuta. Planetaren egungo egoerari buruzko hurbilketa errealista, konprometitua eta kritikoa proposatzen digu Gasteizko SUNCINE erakusketak, bai alor sozialean, indibidualean zein ingurumenekoan.

Beste urte batez, jaialdiko filme sorta interesgarri bat izango dugu ikusgai, 5 saiotan antolatutako 3 film labur, 5 film luze eta animaziozko 5 film labur. 3. saioan Suncine Jaialditik kanpoko bertako dokumental bat ikusiko dugu: *"Zure platerean hasten da mundua"*. Bertoko ekoizpen-sarea eta agroekologia balioesten dituen film luzea. Saio hau ixteko mahai-inguru irekia proposatuko da eragile desberdin eta publikoaren artean.

Aurtengoan, gaur egungo krisi eko-sozialari  buruzko gai anitzez arituko da Suncine erakustaldia: gure elikadura ereduak eta perspektiba agroekologikoak, itsasoen gaur egungo egoera, baliabide naturalen erauzketa bortitzak gizartean eta bizitzan duen inpaktua, basoen garrantzia ingumenean, herri desberdinen naturarekiko harremana, ekosistemen degradazioa, eta beste hainbat gai.

Begirada horiek guztiek, hainbat eta hainbat pertsonaren Lurraren aldeko konpromezu eta bultzada isladatzen digute; gizakia eta planetaren arteko oreka berrien irudikapen zintzoa.

*"Artea ez da errealitatea isladatzeko ispilu bat, forma emateko mailu bat baizik" (Bertolt Brecht)*

# INTRODUCCIÓN

SUNCINE, Festival Internacional de Cine de Medio Ambiente llega a su 30ª edición, consolidado como referente mundial en el cine medioambiental para todos los públicos. Una vez más, esta muestra nos acerca a Vitoria-Gasteiz una aproximación realista, comprometida y crítica a la situación actual del planeta, tanto a nivel medioambiental, socioeconómico como cultural.

Este año la selección incluye 5 largometrajes, 3 cortometrajes y 5 cortos de animación que se distribuirán en cinco sesiones, incluida la reservada al documental local, "*Zure platerean hasten da mundua*", trabajo externo al Festival Suncine que pone en valor el tejido productivo local y la agroecología.

La muestra de este año nos acerca la deslumbrante belleza natural de la que podemos ser guardianes y nos hará reflexionar sobre temas muy diversos que vertebran la crisis ecosocial actual: la cuestión alimentaria y la perspectiva agroecológica, la situación de nuestros bosques y mares, el impacto sobre la vida y la sociedad de la extracción indiscriminada de recursos, la relación de diferentes pueblos con la naturaleza, la degradación de los ecosistemas… entre otros.

Todas estas miradas nos dan la oportunidad de imaginar las posibles nuevas estrategias que pueden redefinir nuestro necesario equilibrio en el planeta que habitamos.

*"El arte no es un espejo para reflejar la realidad, sino un martillo para darle forma" (Bertolt Brecht)*

# Egitaraua

Proiekzioak: 19:00
ekitaldi aretoa
Aldabe Gizarte Etxea

## martxoak 11, astelehena

| | |
|---|---|
| Voices in the water | 20 min |
| La batalla del viento | 70 min |

## martxoak 13, asteazkena

| | |
|---|---|
| Amalur | 40 min |
| Urak lawoi, Hermanos del Mar | 70 min |

## martxoak 14, osteguna

| | |
|---|---|
| Zure platerean hasten da mundua | 90 min |

## martxoak 18, astelehena

| | |
|---|---|
| For tomorrow | 70 min |
| Terra de mulheres | 21 min |

## martxoak 21, osteguna

| | |
|---|---|
| Què li passa al cel? | 10 min |
| Stray flowers | 7 min |
| El hombre que arreglaba las cosas | 7 min |
| Sombre | 6 min |
| The last tree | 2 min |
| The sorrow of the forest | 29 min |
| How blue is your ocean | 35 min |

# Programa

Proyecciones: 19:00
Salón de actos
Centro Cívico Aldabe

## lunes 11, marzo

| | |
|---|---|
| Voices in the water | 20 min |
| La batalla del viento | 70 min |

## miércoles 13, marzo

| | |
|---|---|
| Amalur | 40 min |
| Urak lawoi, Hermanos del Mar | 70 min |

## jueves 14, marzo

| | |
|---|---|
| Zure platerean hasten da mundua | 90 min |

## lunes 18, marzo

| | |
|---|---|
| For tomorrow | 70 min |
| Terra de mulheres | 21 min |

## jueves 21, marzo

| | |
|---|---|
| Què li passa al cel? | 10 min |
| Stray flowers | 7 min |
| El hombre que arreglaba las cosas | 7 min |
| Sombre | 6 min |
| The last tree | 2 min |
| The sorrow of the forest | 29 min |
| How blue is your ocean | 35 min |

# Voices in the water

martxoaren 11a, astelehena

11 de marzo, lunes

Juan Fernández Gebauer

ARGENTINA - ALEMANIA

20 min

*Voices in the Water* (Ahotsak uretan) filmeak 3 kirolari profesional eta aktibistaren begirada eta bizipenak kontatzen ditu Patagonia Urdinean zehar (Chubut), izaki bizidunez jositako eta parerik gabeko kostalde zabala. Itsas Bizitza eta natura berari lotutako begirada, ama lurraren zaintza eta konexio intimoa helarazten diguna, problematika larri baten errealitatea dokumentatuz kontzientziak astintzeko: urtero arraste-arrantzak eragiten dituen 640.000 tona "ekipo fantasma" eta hauek bioaniztasunean eta ekosistemetan duten inpaktua.



*Voices in the Water* (Voces en el Agua) cuenta la vivencia y visión de tres navegantes profesionales y activistas a través de la Patagonia Azul (Chubut), un mundo de costas espectaculares y abundante vida silvestre.
Una mirada que transmite la necesidad del cuidado y la conexión íntima con la vida marina y con la naturaleza en general. Visibiliza la grave amenaza para la biodiversidad y los ecosistemas que suponen los "equipos fantasma", las más de 640.000 toneladas anuales de artes de pesca intensiva perdidas en el mar.

# La batalla del viento

martxoaren 11a, astelehena

11 de marzo, lunes

Richard Zubelzu

ESPAINA / ESPAÑA

70 min

## Premio Ñ - Ñ saria

***"Magda Calabreseren gidoia eta ekoizpena"***

Energia berriztagarrien eredu estraktibistari buruz hausnartzen duen filme ausarta. Logo berdea-rekin jolasean dabiltzan enpresen zuriketa eta oligopolioa aztertu eta, bertoko aktore anitzen testigantzak biltzen ditu: abeltzainenak, ostalari, politikari, aktibista, bizilagun, soziologo zein naturalistenak. Makroparkeek bioaniztasuna eta landa-kultura mehatxatzen dute, eta derrigorrean deskalabru klimatikoa ekidin nahi bada ere, egungo jausi energetikoak eragin negatibo nabaria dakar ingurumenean, eredu industrial ase ezinaren hedapenarekin batera.




***"Guión y producción de Magda Calabrese"***

Película que nos hace reflexionar sobre el modelo extractivista de las energías renovables, el blanqueamiento de las empresas con el logo verde y el oligopolio asociado. La película cuenta con testimonios de ganaderos, hosteleros, políticos, activistas, grupos ecologistas, sociólogos, vecinos y naturalistas. Los macroparques amenazan la biodiversidad y la cultura rural, y aunque no cabe duda de que hay que evitar el desastre climático, la manera en la que se está dando este salto, supone un enorme impacto sobre el medio físico, y una expansión más del voraz modelo industrial.

# Amalur

martxoaren 13a, asteazkena

13 de marzo, miércoles

Egoi Suso Rius

ESPAINA / ESPAÑA

40 min

## Premio Miradas - Miradas saria

*Amalur* dokumentalak gizateriaren eboluzioa eta honen naturarekiko harremana azaltzen du antzinatik gaur egungo jendez gainezkako hirien garaieraino.
Desberdintasun sozial, norabiderik gabeko garapen eta kontsumitzen diharduen munduaren errealitatetik at ihes egin nahi dugunean hartzen ditugun joera kolektibo zein indibidualei buruzko analisia.
Irudiek eta musikak haien kabuz komunikatzea bideratzen dute lan honetan, elkarrizketarik gabeko istorioan. Bizipenez betetakoa, sakon murgiltzen zaituen filmea, munduaz ganoraz hausnartzeko.



*Amalur* es un documental que narra la evolución del ser humano y su relación con la naturaleza desde lo más ancestral hasta los tiempos más modernos donde imperan las grandes ciudades que albergan a miles de personas.
Un análisis de cómo nos comportamos social e individualmente cuando buscamos evadirnos de la realidad para sobrevivir ante un mundo agitado: lleno de desigualdades e imbuido en un progreso sin sentido.
Este es un documental sin diálogos que permite que las imágenes y la música hablen por sí solas. Interesante experiencia cinematográfica, muy inmersiva, y llena de sensaciones. Basta reflexión sobre el mundo que nos rodea.

# Urak lawoi, Hermanos del Mar

martxoaren 13a, asteazkena

13 de marzo, miércoles

Telmo Iragorri,
Manuel Coronado
ESPAINA / ESPAÑA
70 min

Koh Lipe uharteko Itsasoaren Anaiak (*urak lawoi*, haien jatorrizko hizkuntzan) bizileku baten bila ehunka urte daraman herri nomada bat dira.
Duela ehun urte, Tailandiako gobernuak Koh Lipe uhartea eta Adang artxipelagoa eman zizkien bertako aborigenei. Ordutik, Itsasoko Anaiek hondamendi naturalak eta giza hondamendiak gainditu dituzte, arrantzari eta itsasoari buruz duten ezagutza sakonari esker. Gaur egun, haien erronka nagusia jarduera turistikoaren eta mehatxatutako arrantza tradizionalaren arteko oreka aurkitzea da.



Los Hermanos del Mar de la isla de Koh Lipe (*urak lawoi*, en su lengua nativa) son un pueblo nómada que lleva cientos de años buscando un lugar donde asentarse.
Hace cien años, el gobierno tailandés concedió la isla de Koh Lipe y el archipiélago de Adang a sus habitantes aborígenes. Desde entonces, los Hermanos del Mar han superado desastres naturales y humanos gracias a sus profundos conocimientos sobre la pesca y el mar. Hoy día su reto es el de encontrar su equilibrio entre la actividad turística y la pesca tradicional, la cual enfrenta profundos retos.

# Zure platerean hasten da mundua

martxoaren 14a, osteguna

14 de marzo, jueves

Ion Fontenla,
Amaia Aierbe

EUSKAL HERRIA / PAIS VASCO

90 min

**+ MAHAI INGURU IREKIA PROIEKZIOA ETA GERO**
**Euskal Herriko Hazien Sarea eta Bionekazaritzako laborari batekin**

**+ COLOQUIO ABIERTO TRAS LA PROYECCIÓN**
**junto a la Red de Semillas de Euskadi y una productora de Bionekazaritza**

**"Suncine jaialditik at dagoen filme euskalduna"**

Planeta honek etorkizunik izango badu, elikadura katearen oinarriak iraultzen ari direnei esker izango da. Ekoizle eta kontsumitzaile, ezinbestean bidelagun garenon esku dago geroa.



**"Film local externo al festival Suncine"**

Si este planeta va a tener futuro, será gracias a las personas que revolucionan las bases de la cadena alimentaria. El porvenir está ligado a quienes participamos en este camino compartido entre productoras y consumidoras.

CROPS 4LIFE
CONSUME AGROLOCAL, NATURA ZAINDU
Life
Co-funded by the European Union

# For tomorrow

An Tran
KANADA / CANADÁ
70 min

martxoaren 18a, astelehena
18 de marzo, lunes

Hurrengo ideia honekin buruan… "edonork eman diezaioke forma etorkizunari", filme honek grin handiko bost pertsona berritzaileren erronkak isladatzen ditu.
Bostek eragin handia izan dute beren komunitateetan, eta mundua leku hobea bihurtzen jardun dute. Tokiko eragileek Vietnamen, Sierra Leonan, Azerbaijanen, Perun, Indian, Korean, Estatu Batuetan eta Ginean filmatu dute pandemian zehar, eta esperientzia hauek guztiak bilduz, filmak berrikuntza nola txertatu daitekeen erakusten du mundu osoko premiazko jasangarritasun-erronkei aurre egiteko.




Con la premisa de que "cualquier persona puede dar forma al futuro", la película arroja luz sobre los desafíos de cinco apasionadas personas innovadoras.
Las cinco han tenido un profundo impacto en sus comunidades y se han dedicado a hacer del mundo un lugar mejor. Filmada por equipos locales en Vietnam, Sierra Leona, Azerbaiyán, Perú, India, Corea, Estados Unidos y Guinea durante la pandemia, la película demuestra maravillosamente cómo se debe incluir la innovación para combatir nuestros desafíos de sostenibilidad más urgentes en todo el mundo.

# Terra de mulheres

Oriane Descout

BRASIL

martxoaren 18a, astelehena

18 de marzo, lunes

21 min

Brasilen emakume nekazariak egunero borrokatzen dira haien familiak elikatzeko eta landa-kultura zaindu ahal izateko. Horietako bi dira film labur honetako protagonistak, Rosa eta Fatinha. Filmaren zuzendariak (Oriane) eta bere urtebeteko alabak, Minas Gerais-eko laborari hauen identitatean eta eguneroko bizitzan murgiltzen dira, ikaskuntza prozesu eta bilaketa pertsonala izango den bidean. Azken finean haien desioa beren alabek naturaren eta nekazal bizitzaren zaintzarekin jarraitu ahal izatea da, baina familia bakoitzak bere erronkei egin behar die aurre.



En Brasil las campesinas luchan diariamente por alimentar a sus familias y preservar la cultura rural. Dos de ellas, Rosa y Fatinha, junto a sus hijas, son las protagonistas de este cortometraje. Junto a ellas, la directora de la película, Oriane, y su hija de 1 año, emprenden una búsqueda vital y de aprendizaje en la ruralidad de estas agricultoras de Minas Gerais. Todas desean que sus hijas puedan continuar con el cuidado de la naturaleza y la vida campesina, aunque cada familia se enfrenta a sus propios retos.

# Què li passa al cel?

Irene Borra

KATALUNIA / CATALUÑA

martxoaren 21a, osteguna

21 de marzo, jueves

10 min

**Monarca saria animazio onenari**
**Premio Monarca mejor animación**

*Eguzkia pozik irteten da zerumugatik eta paisaiarik ederrenak jasotzen du. Gizakiak, halaber, esnatzen dira eta gauza bera egiten dute beti: zuhaitzak moztu, norabiderik gabe eraiki eta kutsatu.*



El sol sale alegremente por el horizonte y es recibido por el paisaje más hermoso. Los humanos también se despiertan y hacen lo mismo de siempre: talar árboles, construir sin rumbo y contaminar, entre otras cosas.

# Stray flowers

Amr Dallaq

YEMEN

martxoaren 21a, osteguna

21 de marzo, jueves

7 min

Bere aita asmatikoarekin bizi den Maherren istorioa. Maher goizero irteten da jendeak jan, edan eta botatzen dituen arrosak biltzera...

Historia de Maher, que vive con su padre, el cual sufre de asma. Maher sale todas las mañanas a recoger rosas que la gente come, bebe y tira...

## El hombre que arreglaba las cosas

Annie Farley

ERRESUMA BATUA / REINO UNIDO

martxoaren 21a, osteguna

21 de marzo, jueves

7 min

Bere konponketak zehatzak dira, eta jendeak geroz eta puskatutako gauza gehiago ekartzen dizkio. Zailtasunak metatzen hasiko zaizkio, baina ume batekin bizitako gertaera harrigarri baten ondoren, pertsona guztiak elkartzen hasiko dira, oraindik Lurra konpontzeko aukera dugula konturatuko dira eta.

Sus reparaciones son minuciosas, así que la gente le trae cada vez más cosas rotas. Cada vez tiene más y más cosas complicadas, pero después de un asombroso suceso con un niño, todas las personas se unen, descubriendo que todavía tenemos una oportunidad de reparar la Tierra.

## Sombre

Alexis Morisson

FRANTZIA / FRANCIA

martxoaren 21a, osteguna

21 de marzo, jueves

6 min

Plastikoa jasotzen duen urpekari batek istripu bat du eta arrakal ozeaniko batean eroriko da. Amildegian, bizirauteko modua aurkitu beharko du, baina iluntasunak izugarria den zerbait ezkutatzen du.

Un buzo que recoge plástico tiene un accidente que lo hará caer en una grieta oceánica. En el abismo, tendrá que encontrar la manera de sobrevivir, pero la oscuridad esconde algo terrible.

## The last tree

Zülfü Gül

TURKIA

martxoaren 21a, osteguna

21 de marzo, jueves

2 min

Zer gertatzen da lurreko azken zuhaitza mozten denean?

¿Qué sucede cuando se tala el último árbol de la Tierra?

# The sorrow of the forest

Maryam Razaghi

IRAN

martxoaren 21a, osteguna

21 de marzo, jueves

29 min

The *Sorrow of the Forest*, gizakiak Hircaniako basoetan (Irango ipar-mendebaldean) irekitako zauriei buruzko kontaketa da.
Dokumental honetan, basozain zaharrak basoa eta bertako animaliak zaintzearen erronka latzari aurre egingo dio. Bizitza oso bat ingurumenaren degradazioa saihestearen alde, jatorrizko biztanleen hurrengo belaunaldiek herrialdearen birika berdeekin errespetuan bizitzen jarraitu dezaten.



The *Sorrow of the Forest* narra las heridas abiertas por el ser humano en los bosques de Hircania, al noroeste de Irán.
En este documental, el viejo guarda forestal se enfrenta a serios retos para cuidar el bosque y a los animales que lo integran. Toda una vida en pro de evitar la degradación ambiental, para que las siguientes generaciones de habitantes originales puedan continuar viviendo en respeto con los pulmones verdes del norte del país.

# How blue is your ocean

Joe Pisciotta

AEB / EEUU

martxoaren 21a, osteguna

21 de marzo, jueves

35 min

Arrainek plastikoa jaten dute. Guk arrainak jaten ditugu. Asmatu.

Los peces comen plástico. Nosotros comemos peces. Piénsalo.

**SUNCINE Ingurumeneko Zinemaren Nazioarteko Jaialdiaren**
**20.** erakusketa

**20.** Muestra **SUNCINE**
**Festival Internacional de Cine del Medio Ambiente**